

Etxebarriko Euskaltzaleen Elkartearen Sortzen

Definizioaren lehenengo hurbilpena. Adostasun zabalaren bila.

	1.- Diagnostikoa (1=ez nago ados / 2=ados / 3=Guztiz ados)	1	2	3
1	Uste baino gehiago gara , eta, gehienetan familia mistoetan gaude. Elebidunak biztanleen % 22,55 dira eta elebidun hartzaileak, berriz, %26,93.			
2	Normalean erregistro formalaren inguruan batzen gara: eskola eta euskaltegia.			
3	Kale erabilera oso urria da. Zehatzago esatearren: %3,1.			
4	Adinari erreparatuz gero, muturreko kopuruetan ditugu biztanle euskaldunak. Hau da, murgiltze ereduari matrikulatuta egotearen ondorioz euskaldunak dira gazte guztiak. Hala ere, gaztarotik helduarora pasatuz gero, euskaldunen kopuruak nabarmen egiten du behera, zahartzaroan progresio hori mantenduz.			
5	Nolabaiteko desmobilizazioa dago: euskararen inguruko politika, dinamika eta ardura udalaren esku delegatu ditugu.			
6	Herrian txertatzeko gogoia izan dezaketena auzokide berri asko. Euskara integratzeko aitzakia edo tresna izan daiteke.			
7	Herritar askok ez dute euskaraz bizitzeko beharrik sentitzen.			
	2.- Eragin esparru posibleak (1-lehentasun txikia, 2-ertaina, 3-handia)	1	2	3
8	Euskarak presentzia publiko txikia du herrian (errotulazioa, kaleko elkarrizketak...), legezko derrigorra den esparruetatik kanpo.			
9	Merkataritzan, banketxeetan, tabernetan eta halakoetan arlo zabal eta librea dugu.			
10	Etxebarriko Euskaltegia: ezagutza maila eragilea eta bilgunea. Ikasleak euskaraz egitera animatzea izan daiteke gure lana.			
11	Berbalapiko: hor bereziki gogotsu dabilen jendea batzen da. Berbalapikoei asteroko hitzorduetatik kanpo ere euskaraz egiten lagundu...			
12	Bestelako guneak: ikastetxeak, ludotekak, ikastola, Mugarri, Tarrasta.			
13	Euskaldunok elkar ezagutzen jarraitu behar dugu.			
14	Euskaldun komunitatea osatzeke dago. Erreferenteak behar ditugu herrian.			
15	Elkartegintza: kirol eta kultur elkarte asko daude herrian.			

